

ANDRE GOBADARIEN IBAI PARKEA

Ibaia eta ibai eremua berreskuratzeko esku-hartzea



Astigarragako Andre Gobadarien Ibai Parkea zabaldu berri dugu, urte askotako lana eta askoren artean burututako ekimena.

Ibai parkea ekimen berritzaile eta oso berezia da. Helburu hauek lortu ditugu esku-hartze horrekin: a) Garapen urbanistikoa; b) Uholdeen aurkako esku-hartzea; c) Aisia eta d) Habitat naturala leheneratzea.

Helburu horiek guztiak ibai ertzeko horren eremu zabalean (5,5 h-tan) eta horren aldaketa sakonak eraginaz landu dituen ekimen honek, apenas du aurrekaririk gure artean. Bertan, diziplina anitzeko aditu talde bat elkarrekin aritu da helburu guzti horiek bateragarri egiteko. Hona hemen irudi batean burutu den esku-hartzearen datu nagusiak:



Ibai luzera:	590
Esku-hartze eremua:	72.341 m ²
Eraikinak, urbanizazioa:	17.460 m ²
Ibai Parkea:	54.881 m ²
Behe lautada:	16.678 m ²
Erdiko lautada:	26.061 m ²
Goi lautada:	12.262 m ²

Lorpenak:

1.- Ibaiaren morfologia aldatu

Ibaiaren morfologia berriak, baxuagoak, uholdegarritasuna handitu egiten du. Mendeetan ibaiaren eragina mugatuz aritzearen joera irauli eta ibaiaren eragin hori eremu zabalagora hedatu egiten dugu. Horrekin, prozesu naturalagoagoei bidea zabaltzen diegu eta, ondorioz. “ibaiaren lurraldea” handitzen.

2.- Espezie inbaditzaileak erauzi

Espezieei erreparatuz gero, esan behar dugu lanak hasi aurretik, eremu honetako paisaia erabat eraldatuta zegoela, nagusi ziren arrotzak zaizkigun espezie inbaditzaileak; hauek ziren, horien artean, aipagarrienak: *Fallopia japonica* (poligono edo kainabera japoniarra), *Robinia pseudoacacia* (sasiarkazia), *Phyllostachys aurea* (banbua), *Phytolacca americana*, *Paulownia tomentosa*, *Datura stramonium* (estramonioa), *Impatiens balfourii* (Cachemirako balsamoa).

Landare hauek lortzen dutena da bertako berezko flora erabat baztertzea eta lekuari dagokion habitat naturala desagertzea. Lan eskergaren esker, metodo mekanikoak eta kimikoak erabiliz gehienak erauzi ditugu. Halare, pare bat urtez edo jarraitu beharko dugu eginikoa alferrik izan ez dadin.

3.- Landaketak

Hauek denak kentzearekin batera bertako ibar-basoa errekeratzen saiatu gara eta, horretarako hainbat zuhaitz nahiz zuhaixka landatu ditugu (rotara 1260):

- Astigarra, Arce, *Acer campestre*, 30
- Haltza, aliso, *Alnus glutinosa*, 600
- Urkia, abedul, *Betula celtiberica*, 10
- Zuhandorra, cornejo, *Cornus sanguinea*, 50
- Hurritza, avellano, *Corylus avellana*, 20
- Lizarra, fresno, *Fraxinus excelsior*, 80
- Gorostia, acebo, *Ilex aquifolium*, 30
- Sagarmina, manzano silvestre, *Malus sylvestris*, 50
- Gereziondoa, cerezo, *Prunus avium*, 30
- Sta. Luzia gereziondoa, cerezo de Sta. Lucia, *Prunus mahaleb*, 20
- Elorri beltza, endrino, *Prunus spinosa*, 40
- Txermen makatza, peral silvestre, *Pyrus cordata*, 15
- Haritza, roble, *Quercus robur*, 100
- Intsusa, saúco, *Sambucus nigra*, 40
- Otso-lizarra, serval de los cazadores, *Sorbus acuparia*, 5

- Zumar dilindaria, olmo pedunculado, Ulmus laevis, 100
- Marmaratila, morrionera, Viburnum lantana, 40
- Guztira1260

Landare hauek bizpahiru urte beharko dituzte tamaina egoki bat izaten, bitarte horretan komeni da jendeak ahalegin berezi bat egitea horiek errespetatzen.

Landareez gain, **fauna aldetik** ere, urari lotutako hainbat nitxo berri sortu ditugunez, pentsatzekoa da horrek ere eragingo duela animalien orain baino presentzia handiagoa:

- Ibaiak beheko lautadan sortu dituen putzuetan anfibioak oro har, lehen ez zuten ingurua aurki dezakete, igel arrunta eta apoa gutxienez, lehen baino ugariago azaldu beharko lirateke.
- Lautada horretan, urak hasitakoan lurrez garbitu eta azaleratu dute harri legarrez osatutako lautadatan aurten idada azaldu da txirritxo txikia (Charadrius dubius—chorlitojo chico), pentsatzekoa da agian bertan kumatzen hasi litekeela.
- Ur-gezako putzuan, lehen aipatu ditugun anfibioez gain, odonatuak eta burrunziak ere azalduko dira.
- “Ibai lurraldea” deitu diogun hori zabaltzeak, eremu hau korridore gisara erabiltzen dutenentzat ere hobekuntza bat izango da, horien artean ditugu hainbat ugaztun (bisoia, ur ipurtatsa...) eta arrainek ere ibai ertzak askoz erakargarriago aurkituko dituzte, horien artean, besteak beste, migratzaileak diren izokinak eta aingirak berak ere.

Astigarrako eta inguruko beste biztanleek, urte gutxi barru nabaritu dute herrian bertan badutela aisiarako estetika aldetik leku txukun eta politaz gain ingurumen eta kalitate naturalaren aldetik eremu aberats bat, ibaia behingoz balio handiko elementu gisara ikusiko dute eta, pentsatzekoa da, hemen egindako ekimenaren antzeko gehiago egitea eskatuko dutela Ergobiatik errekan goranz nahiz beheranz, bai ibaiaren alde honi jarraituz, baita ere, nola ez, bestaldetik.

Astigarraga, 2019ko urriaren 18a
Astigarragako Udala